

TURISMOARI BURUZKO EUSKAL HERRITARREN IRITZIAK

2021eko ekaina – Laburpen exekutiboa

PERCEPCIÓN DE LA SOCIEDAD VASCA SOBRE EL TURISMO

Junio 2021 - Resumen ejecutivo

BIDAIA OHITURAK COVID-19 AURRETIK

- **Oporretan kanpora joateko edo ihesaldi laburrak egiteko ohitura oso zabalduta dago Euskadin**, eta herritarren % 83k diote pandemiaren aurretik gutxienez urtean behin oporretarako astebeteko edo gehiagoko bidaiak egiteko ohitura zutela; horietatik % 46k urtean behin baino gehiagotan. Gainera, % 64k urtean behin gutxienez gau bateko edo biko ihesaldiak egiten dituzte; horietatik erdiak baino gehiagok urtean behin baino gehiagotan (% 55).
- **Egun bateko txangoak -gaua bertan pasa gabe-egiteko ohitura ere zabalduta zegoen** (% 81) pandemiaren aurretik: % 34k hilero egiten zuten, % 42k urtean behin baino gehiagotan, eta % 5ak urtean behin
- Gainera, % 43k adierazi dute **bigarren etxebizitza bat dutela oporretarako erabiltzen dutena** (jabetzan edo familiakoa); batez ere, Kantabrian (% 18), EAEn bertan (% 13), Burgosen (% 11) eta Gaztela eta Leongo gainerako lekuetan (% 13), etab. Bizkaiko biztanleek batez ere Kantabrian dute bigarren etxebizitza (% 26), Arabakoek EAEn bertan (% 19) eta Gipuzkoakoek Nafarroan edo Iparraldean (% 18).
- Gehienek **bikotekidearekin** bidaiatzen dute (% 34), **edo bikotekidearekin eta seme-alabekin** (% 26), gazteenak izan ezik (18-29 urte); horiek modu anitzagoetan bidaiatzen dute: lagunekin (% 28), bikotekidearekin (% 23) eta gurasoekin eta beste senide batzuekin (% 21).
- Gehienek nahiago dute **euren bidaiak pertsonalki planifikatu** (% 65), eta % 17k soilik jotzen dute bidai-agentzia batera. 65 urtetik gorakoak dira bidaiarako informazio bila, mota horretako establezimenduetara gehien joaten direnak (% 35), bai eta pakete turistikoko oso bat gehien eskuratzen dutenak ere (% 11).
- Bidaietarako eta ihesaldietarako informazio-iturri gisa, **Internet da gehien erabiltzen den bitartekoa**: hots, Interneten bidez informatzeko planteatutako hiru moduak aintzat hartuta, **helmugako edo erreserbako webguneak** (% 45), **sare sozialak** (% 14) eta **bidaiablogak** (% 10), **herritarren % 69k erabiltzen dituzte informazio-iturri horiek**. Gainera, Internet are gehiago erabiltzen da gazteen artean: % 90ek 18-29 urtekoen artean, % 84k 30-45 urtekoen artean eta % 74ek 46-64 urtekoen artean. Aldiz, ehunekoa % 31raino jaisten da 64 urtetik gorako biztanleen artean. Azken horiek bidai-agentziak presentzialki erabiltzen dituzte gehienbat (% 39).
- Bigarrenik, bidaiak eta ihesaldiak planifikatzeko informazio-iturri erabiliena **lagunen eta senideen gomendioak dira** (% 52).

FORMAS DE VIAJAR ANTES DE LA COVID-19

- **La costumbre de salir fuera por vacaciones o realizar escapadas cortas está muy extendida en Euskadi**, y el 83% de la población afirma que antes de la pandemia tenía por costumbre realizar viajes de una semana o más por vacaciones por lo menos una vez al año; de ellos el 46% varias veces al año. Además, el 64% realizan escapadas de una noche o dos por lo menos una vez al año; de entre ellos más de la mitad varias veces al año (55%).
- **También estaba extendida la costumbre de realizar excursiones de un día sin pernoctación** (81%): cosa que hacían el 34% cada mes, el 42% varias veces al año y el 5% una vez al año, antes de la pandemia.
- Además, el 43% afirma tener disponibilidad de utilizar **una segunda vivienda por vacaciones** (en propiedad o de la familia); sobre todo en Cantabria (18%), en la propia CAPV (13%), en Burgos (11%) y el resto de Castilla y León (13%), etc. La población de Bizkaia tiene segunda residencia en mayor medida en Cantabria (26%), la de Araba en la propia EAE (19%) y la de Gipuzkoa en Nafarroa o Iparralde (18%).
- Mayoritariamente la población viaja **con su pareja** (34%) **o con su pareja e hijos/as** (26%), a excepción de la población más joven (18-29 años) que viajan de formas más diversas: con amigos/as (28%), con la pareja (23%) y con los padres y otros familiares (21%).
- La mayoría prefiere **planificar sus viajes personalmente** (65%) y tan sólo el 17% recurre a una agencia de viajes. Las personas mayores de 65 años son quienes en mayor medida acuden a este tipo de establecimientos a informarse sobre el viaje que quieren realizar (35%) y también quienes en mayor medida adquieren un paquete turístico completo (11%).
- Como medio de información para viajes y escapadas **Internet es la fuente más utilizada**; de forma que, si sumamos las tres formas de informarse a través de Internet planteadas, **las webs de destino o reserva (45%), las redes sociales (14%) y los blogs de viajes (10%), éstas son el medio de información utilizado por el 69% de la población**. Además, Internet se utiliza de forma aún más mayoritaria entre la población más joven: 90% entre los de 18-29 años, 84% entre quienes tienen entre 30-45 años y 74% entre las y los de 46-64 años. En cambio, el porcentaje desciende hasta el 31% entre la población mayor de 64 años. Éstos últimos utilizan en mayor medida las agencias de viaje acudiendo presencialmente (39%).
- En segundo lugar, la fuente de información más utilizada para planificar los viajes y escapadas son las **recomendaciones de amigos/as y familiares** (52%).

- **uskadi barruko bidaietan**, herritarrek gehien **motibatzen dituen** dira euskal kostaldea (% 72 asko edo nahikoa) eta paseatzeko edo jarduerak egiteko naturguneak (% 67); ondoren leudeke, artea eta ondarea ezagutzea (% 56) eta gastronomia (% 55).
- Zentzu berean, herritarrek gehien nabarmentzen dituzten **Euskadiko bi erakargarri-turistikoen artean**, batez ere, kostaldeko lekuak edo udalerriak daude (% 62), baita Donostia (% 36) eta zenbait natur-gune berezi ere (% 27).
- En **los viajes dentro de Euskadi** lo que en mayor medida **motiva a la ciudadanía** es la costa vasca (72% mucho o bastante) y los espacios naturales para pasear o realizar actividades (67%), después estarían conocer el arte y el patrimonio (56%) y la gastronomía (55%).
- De forma que, entre los **dos atractivos turísticos de Euskadi más destacados** entre la ciudadanía se encuentran lugares o municipios de la costa (62%), además de San Sebastián (36%), y algunos espacios naturales destacados (27%).

2021EKO ASTE SANTUKO OPORRAK

- Aste Santuko oporretan, **biztanleen % 8k soilik egin dute bidaiaren bat turismoagatik Euskadi barruan**. 45 urtetik beherakoak izan dira irtenaldiak gehien egin dituztenak (% 15, 18-29 urte artean eta % 16, 30-45 artean).
- Hala ere, **biztanleen % 28 Euskadiko lekuak bisitatzera atera dira egun bateko txangoetan, gaua kanpoan igaro gabe**; ehuneko hori % 40tik gorakoa delarik bi adin-tarte gazteenen artean.
- **Aste Santu honetan ez bidaiatzeko arrazoi nagusia** Covid-19a izan da: kutsatzeko beldurragatik (% 43), mugikortasun mugengatik (% 11) edo pandemiarekin lotutako beste arrazoi batzuegatik (% 5).
- Ihesaldi hauen helmuga **euskal kostaldea izan da batez ere (% 37) eta % 26k barnealdeko udalerriren bat aukeratu dute**. Gazteenek neurri handiagoan erabaki dute Bilbo edo Donostia bisitatzeko.
- Oro har, **zerbitzuarekiko eta jasotako tratua** **asebetetze-maila oso handia izan da planteatutako alderdi guztietan**: ostatuan COVIDaren aurka hartutako neurriak (% 98), ostatuaren kalitatea (% 98), jasotako tratua (% 96), zonaldeko eskaintza gastronomikoa (% 90) eta zonaldeko zerbitzuen prezioen maila (% 84).
- **Egin diren jarduerak**, batez ere, aire zabalekoak izan dira: paseatu eta paisaiatzeko (% 62) eta naturan jarduerak egin (% 52).

2021EKO UDAKO OPORRAK

- **% 65ek uste dute ziurrenik bidaiaren bat egingo dutela uda honetan aisialdiaz gozatzeko**, batez ere, gazteenen artean.
- **Bidaiatuko ez dutenen artean**, arrazoi nagusia pandemiarekin eta kutsatzeko beldurrekin lotuta dago (% 38); bigarrenik, arrazoi pertsonalekin (% 23), ekonomikoekin (% 12) edo denbora faltarekin (% 12).

VACACIONES DE SEMANA SANTA 2021

- Durante las vacaciones de Semana Santa **tan sólo ha realizado algún viaje por turismo dentro de Euskadi el 8%** de la población. La población que ha viajado en **mayor medida han sido los menores de 45 años** (15% entre 18-29 años y 16% entre 30-45).
- Sin embargo, **el 28% de la población ha salido a visitar lugares de Euskadi en excursiones de un día sin pernoctar fuera**; porcentaje que supera el 40% entre las dos franjas de edad más joven.
- Entre los **motivos para no viajar esta Semana Santa** el principal con diferencia ha sido el Covid-19: por el miedo al contagio (43%), por los límites a la movilidad (11%) u otras causas relacionadas (5%).
- El destino elegido ha sido sobre todo **la costa vasca (37%) y el 26% han elegido algún municipio del interior**. Las y los más jóvenes han optado en mayor medida por visitar Bilbao o San Sebastián.
- En general la **satisfacción con el servicio y trato recibido ha sido muy alta en todos los aspectos planteados**: las medidas anti-covid en el alojamiento (98%), la calidad del alojamiento (98%), el trato recibido (96%), la oferta gastronómica de la zona (90%) e incluso el nivel de precios de los servicios de la zona (84%).
- **Las actividades realizadas** han sido sobre todo al aire libre: pasear y disfrutar del paisaje (62%) y realizar actividades en la naturaleza (52%).

VACACIONES DE VERANO 2021

- El **65% cree que muy o bastante probablemente realizarán algún viaje por turismo este verano**, sobre todo entre las y los más jóvenes.
- Entre **quienes no van a viajar**, la razón principal está relacionada con la pandemia y el miedo al contagio

- Bidaia gehienak **astebetekoak (% 46) edo bikoak (% 32)** izango dira.
 - **Espainia izango da gehiengoak aukeratuko duen lekua (% 14k Espainiako iparraldea eta % 54k Espainiako beste leku bat).** % 4k Euskadi barruan bidaiatzeko asmoa dute, %2k Nafarroara eta %1 Iparraldera.
 - **Kostaldeko turismoa** nabarmentzen da (% 57); baina ehuneko handi batek naturan jarduerak egitea ere pentsatu du (% 28), eta beste % 25ek hiriak ezagutzea.
 - **Erdia baino gehiago bidaia prestatzen hasi dira** (% 54). Eta bidaiaz informatzeko eta erreserbak egiteko **Internet erabiliko dute, batez ere:** bai bidaiatzeko lekuari buruz (% 71) zein ostatuari buruz (% 72), lekuan bertan egin ditzaketen jarduerari buruz (% 64) eta garraibiderik egokiena aukeratzeko orduan ere (% 58).
 - Gainera, **% 20k pakete turistikoko oso bat erosi nahi dute bidaiarako;** eta ehuneko hori % 36raino igotzen da 65 urtetik gorako pertsonen artean. Pakete turistikoa erreserbak ere Internet bidez egingo dira gehienbat (% 58), baina % 33k bidaia-agentzia fisiko batean erreserbatuko dute.
 - Informazioa jasotzeko eta bidaiaren erreserbak egiteko **gehien erabiltzen diren webguneen** artean Booking da aipatuena, modu nabarmenean gainera (% 47).
 - **Udako oporrei buruzko erabakietan COVID-19ak sortutako egoerak eragin nabarmena du:** bidaiatzea edo ez bidaiatzea erabakitzerakoan (10etik 6,7), nora bidaiatzea erabakitzerakoan (6,2), tokian bertan egin nahi diren jarduerak aukeratzekoan (5,4) eta ostatua non hartu erabakitzerakoan (5,0).
 - Kontestu horretan, bidaiatu ahal izateko **Covid Ziurtagiri Digitala ezartzeko ekimena** oso ondo hartu dute herritarrek: % 76ri oso edo nahikoa ondo iruditzen zaie.
- (38%), en segundo lugar, razones personales (23%), económicas (12%) o de falta de tiempo (12%).
- La mayoría de los viajes que se van a realizar son de una **semana (46%) o dos (32%).**
 - **España va a ser el lugar de destino elegido por la mayoría (14% el norte de España y el 54% el resto de España).** El 4% piensan viajar dentro de Euskadi, el 2% a Navarra y el 1% a Iparralde.
 - Destaca el **turismo costero (57%);** un porcentaje importante también tiene pensado realizar actividades en la naturaleza (28%) y otro 25% se decantarán por conocer ciudades.
 - **Más de la mitad ya han comenzado a preparar el viaje (54%).** Y para informarse sobre el viaje y para realizar las reservas **utilizarán sobre todo Internet:** tanto para informarse por el sitio al que viajar (71%), el alojamiento (72%), las actividades a realizar en el lugar (64%) y para elegir el medio de transporte más adecuado (58%).
 - Además, el **20% tiene pensado adquirir un paquete turístico completo para su viaje;** este porcentaje se eleva hasta el 36% entre las personas mayores de 65 años. Las reservas del paquete turístico también se realizarán mayoritariamente por Internet (58%), aunque el 33% lo reservará en una agencia de viajes física.
 - Entre **las páginas web más utilizadas** para informarse y realizar las reservas del viaje se encuentra en primer lugar Booking (47%) de forma destacada.
 - Las **decisiones sobre las vacaciones de este verano se están viendo bastante influenciadas por la COVID-19,** así: sobre viajar o no viajar (6,7 sobre 10), a dónde viajar (6,2), las actividades a realizar en el lugar (5,4) y dónde alojarse (5,0).
 - Por lo que la iniciativa de **instaurar un Certificado Digital Covid** para poder viajar ha sido muy bien acogida por la ciudadanía: al 76% les parece muy o bastante bien

TURISMOA EUSKADIN

- Euskadiko **garapen ekonomikorako turismoa elementu garrantzitsua da** herritar gehienentzat (% 68), eta gainera positiboa da euskal herritarren eguneroko bizitzarako (% 81).
- Beraz, **Eusko Jaurlaritzarentzat sektoreari laguntzea oso edo nahikoa lehentasunezkoa** izan behar da herritarren ustez (% 86).
- % 34k ezagutzen dituzte **Eusko Jaurlaritzak Euskadiko sektore turistikoa ematen ari zaizkion laguntzak.** Horietatik erdiek uste dute orain arte

EL TURISMO EN EUSKADI

- En Euskadi **el turismo es un elemento de desarrollo económico importante** para la mayoría de la ciudadanía (68%), además de ser **positivo para la vida cotidiana de los vascos y vascas** (81%).
- Por lo que debe ser **muy o bastante prioritario para el Gobierno Vasco ayudar al sector** (86%).
- El 34% conoce **las ayudas que el Gobierno Vasco está dando al sector turístico en Euskadi,** y la mitad de ellos

emandako laguntzak egokiak direla (% 54), eta % 30ek gutxiegia direla

- % 35ek ezagutzen dute **lurralde barruan egin daitezkeen planei eta jardueri buruzko Eusko Jaurlaritzaren webgunea**, baina % 8k baino ez dute erabili.

creen que las ayudas dadas hasta ahora son adecuadas (54%) y el 30% que son insuficientes.

- El 35% conoce la **página web del Gobierno Vasco sobre planes y actividades a realizar dentro del territorio**, aunque tan solo el 8% la han utilizado.

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

Unibertsoa.

EAEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko biztanleak.

Lagin-disenua.

- Lagin-tamaina: **2.055 elkarrizketa EAEn**. 400 Araban, 1.023 Bizkaian eta 632 Gipuzkoan.
- **Gizabanakoaren hautaketa prozedura** polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, udalerraren tamainaren arabera estratu proportzionalak erabiliz. Ondoren **pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera** kuoten bidez aukeratu ziren.
- Lagina diseinatu da inkesten **%50 telefono finkoaren bidez egiteko eta beste %50 telefono mugikorren bidez**.
- Emaizak hiru lurraldeetako **biztanleria zentsuaren arabera haztatu dira**.

Lagin-errorea.

- Lagin errorearen estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, **\pm % 2,2 da EAE osorako**, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik.

Informazio bilketa.

- **2021eko maiatzaren 31tik ekainaren 8ra** bitartean egin zen -biak barne-.
- **Banakako telefono bidezko elkarrizketa**, ordenagailuz lagundua (CATI), **galdetegi egituratu eta itxiaren bidez**.

Ikerketaren diseinua, emaitzen azterketa eta txostena burutzearen ardura Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Informazio bilketa Campo Volantín kalea, 48007, Bilbo helbidean dagoen Ikerfel enpresak egin zuen.

FICHA TÉCNICA

Universo.

Población de 18 o más años **residente en la CAPV**.

Diseño muestral.

- Un tamaño muestral de **2.055 entrevistas para el total de la CAPV**: 400 en Araba, 1.023 en Bizkaia y 632 en Gipuzkoa.
- La **selección de las personas a entrevistar** se realizó por procedimiento polietápico y estratificado proporcionalmente por **tamaño de municipio, con selección posterior de las personas según cuotas de sexo, edad y situación laboral**.
- La muestra se ha diseñado de manera que el **50% de las encuestas se realicen a través de un teléfono fijo y el otro 50% a través de un teléfono móvil**.
- Los datos han sido **ponderados a posteriori en base a la población** de cada uno de los territorios.

Error muestral.

- El error muestral, atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se estima en un **\pm 2,2 % para el conjunto de la CAPV**, con un nivel de confianza del 95,5 %, siendo $p=q=0,5$.

Recogida de información.

- Se realizó entre el **31 de mayo y el 8 de junio de 2021** -ambos inclusive.
- **Entrevista telefónica individual** asistida por ordenador (CATI), mediante **cuestionario estructurado y cerrado**.

El diseño de la investigación, el análisis de los resultados y la elaboración del informe es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. La recogida de información fue realizada por la empresa Ikerfel, sita en la calle Campo Volantín 21, 48007, Bilbao.